

2014/11/20an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 20/11/2014.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Igor Ezpeleta Oregui  
Jose Angel Petralanda Gil  
Rosario Arcarazo Arcarazo  
Juan Luis Merino Sanabria  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2014ko azaroaren 20ko, arratsaldeko lauetan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira eterri Landa eta Regidor andreak eta Jose Mari Herce jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciséis horas del día 20 de noviembre de 2014 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Beinat Herce Leceta , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten las Sras. Landa y Regidor y el Sr. Jose Mari Herce.

## **1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

17. eta 18. kreditu aldaketa espedienteak onartzen dituzten 989. eta 1011. Alkate erabakien berri emandu du Alkateak.

Udal aurrekontuko 17., 18. eta 19. kreditu aldaketa espedienteak eta Telesko Udal Telebista Fundazioko 1. eta 2. kreditu aldaketen espedienteak direla-eta Kontuhartzaitzak egindako finantza iraunkortasunari buruzko txostenen berri izan dute bertaratutako guztiekin.

## **2.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Ez dagokio.

## **3.- KIROL AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.**

Bertaratutako guztiekin ezagutzen dute Kultura batzorde informatzaileak kirol aholkularitza eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua luzatzeari buruz egindako proposamena.

Hitza emanda, ondorengoek hitz egin dute:

\*Ezpeleta jaunak jakinarazi du batzordean justifikatu zituela kontratua luzatzea proposatzeko arrazoia.

\*Merino jauna kexu da arrazoi horiek ez daudelako idatziz jasota. Bere ustez txosten bat egon beharko litzateke, eta bertan jasota egon orain arte zer egin den eta etorkizunean zer egin nahi den, egindakoaren balorazioa, eta kontratua luzatzeko beharraren eta komenigarritasunaren justifikazioa. Esan eta azpimarratu du txosten hori egin beharra dagoela indako erabakirik hartu baino lehen.

\* Cantero jaunak Merinok esandakoa berretsi du. Uste du proposamen bat egiten bada balorazio bat egon delako izan dela, eta ez du zalantzian jartzen izan denik, baina nolabait dokumenturen batean jasota egon beharko litzatekeela uste du, eta ez hitzetan bakarrik gelditu. Esan du alde edo aurka bozkatzeko gutxieneko justifikazioaren bat egon behar dela idatziz.

\* Alkate jaunak kexa onartu du, eta gaia datorren batzordera arte erabakitzeko uztea proposatu du, horrela, eskatutako txostena idatziz eduki ahal izateko erabakiren bat hartu aurretik. Eskatu du kontratu honetan egon den eskakizun maila egotea ere Udalak esleitutako gainerako kontratuetan.

Aho batez erabaki da gaia erabakitzeko uztea, eta aipatutako luzapenaren beharra justifikatzeko txostena egitea kirol zerbitzuko zinegotzi arduranak.

## **4.- KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Kontuan izanik esleipendun izateko proposatutako enpresak ezin izan duela behin betiko bermea jarri denbora gutxi izan duelako hori eskatu zitzaketik (3 egun), gaia aztertzeke uztea erabaki da.

2014/11/20

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno extraordinario

## **5.- IRADOKIZUNEI BURUZKO ERABAKIA ETA TOPONIMIARI BURUZKO LANA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

2014ko irailaren 23an izandako ohiko bilkuran, Udalbatzak hasierako onarpena eman zion 2014ko irailaren 16an egindako Kultura batzorde informatzaileak aurkeztutako toponimiari buruzko lanari, eta lan hori 15 egun baliodunez jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Jendaurrean egoteko denbora horretan hainbat iradokizun izan dira, horiei buruzko txostena egin du euskara teknikariak, eta diktamena eman Euskara batzorde informatzaileak.

Egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2014ko urriaren 30ean egindako Kultura batzorde informatzaileak toponimiari buruz aurkeztutako lana onartzea.

**Bigarrena.-** Onartutako lanaren ondorioz zenbait kaleren izenak aldatu beharko direnez, eta Udalaren betebeharra denez bide publikoen izenak eta errrotulazioa eguneratuta izatea, honako hau erabaki da:

- 1.- 1 eranskinean jasotako Eskoriatzako kale, auzo eta elizateen izenen zerrenda onartzea.
- 2.- Zerrenda horren berri ematea herriko berri ematen duten komunikabideen bitartez.
- 3.- Udal zerbitzuek dagozkion plakak eta seinaleztapen bertikalak alda ditzatela eta onartutako izen berriak jarri, eta baita dagozkion aldaketak egitea planoetan eta udal dokumentuetan ere.
- 4.- Erabaki hau jakinaraztea Estatistika Institutu Nazionalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastro Zerbitzuari, Jabetza Erregistroari eta Correos y Telégrafos Sozietaate Estatalari.

## **10.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Kontuan izanik esleipendun izateko proposatutako enpresak ezin izan duela behin betiko bermea jarri denbora gutxi izan duelako hori eskatu zitzaconetik (3 egun), gaia aztertzeke uztea erabaki da.

## **7.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.**

Udalbatzarrak, 2013ko urriaren 29an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak hartu zituen:

*Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2013-2015 diru laguntzen plan estrategikoa.*

*Bigarrena.- Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.*

*Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.*

Hasierako onarparen aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez zenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluaren c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horrek, 8. eta 10. artikuluetan, eranskinako dokumentuetara bidaliz, 2013ko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak aurreikusten ditu.

2014ko ekitaldirako aurrekontua onartuta, planeko ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokituz ziren 2014ko apirilaren 10ean Udalbatzarrak hartutako erabakiz.

Udalbatzarrak, 2014ko urriaren 28an hartutako erabakiz, kreditu aldaketa bidez, 2014ko Aurrekontuan izendun diru lagunza berria jasotzea erabaki zuen, eta horrek indarrean dagoen diru laguntzen plan estrategikoa aldatzea eskatzen du.

Aurrez esandakoarengatik, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Merino jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiak alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Egungo 2013-2015 Diru laguntzen plan estrategikoa aldatzea ondorengo diru laguntza bertan jaso ahal izateko:

#### **DIRU LAGUNTZA EMATEN DUEN ZERBITZUA: HEZKUNTZA**

##### **A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:** Udalerriko ikastetxeak

HARTZAILEAK: ARIZMENDI S.COOP.

HELBURUAK: IKASTETXEAREN GASTU ARRUNTA.

DIRU LAGUNTZA MOTA: zuzena, hitzarmenarekin.

2014ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0404.481.422.30.01 partida.

## **8.- KREDITUAK ALDATZEKO 19. ESPEDIENTEA: KREDITU GEHIGARRIAK.**

Kredituak aldatzeko 19. expedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiarri egokitzentzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.- UDAL** honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 19. expedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
1.0102.601.511.00.15	San Pedro auzoaren urbanizazioa	0,00	300.000,00	300.000,00
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>0,00,-</b>	<b>300.000,00€</b>	<b>300.000,00€</b>

Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: kreditu gehigarriak.		300.000,00

			€
<i>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</i>			300.000,00

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta expediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

MERINO JAUNAREN BOTO AZALPENA: Merino jaunak esan du ezin duela aurka bozkatu, aldaketa beharrekoak diren obrak egiteko delako, baina, kexu da San Pedro auzoaren urbanizazio osoa egiteko moduaz. Esan du hauteskunde kanpaina guztietan egin beharreko jarduketa bezala sartu dela, baina, oso motel egiten ari dela: 8 urte direla zerbait egiten hasi zenetik, eta oraindik hirugarren fasean gaudela. Kexu da beste jarduketa batzuetarako dirua ateratzen delako edozein lekutik, eta San Pedrorako, berriz, atzeratzen joan delako.

Alkateak erantzun dio orain dela hiru urte egin zen herritarren parte hartze prozesuan 11. lekuaren gelditu zirela “San Pedroko lanak”, eta prozesu hartan lehentasunezkoagotzat jo ziren lanak egin direla.

#### **9.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ BILDUK, ELIZATEAK ETA EZKER ANITZA-IU-K AURKEZTUTAKO MOZIO BATERATUA.**

Iregui andreak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

MOZIO BATERATUA: AZAROA 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO  
EGUNA

Azaroaren 25a **“Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna”** da. Hori dela-eta, Eskoriatzako Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren ondorio diren sexu-indarkeria agerpen mota guztien aurrean.

Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrera isolatuak, baizik eta mundu osoan indarrean dagoen sistema patriarkal baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeenganako indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Maila ezberdineko jarduera oldakor eta matxistak dira, baina denek egiten diete eraso –zuzenean edo zeharka- emakumeen osotasunari, askatasunari eta gaitasunari. Zoritzarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak ahalbidetzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean.

*Oraindik ere komunikabide eta publizitate bide askotan emakumearen gorputza objektu soil bezala islatzen jarraitzen da, eta hainbat gizarte eta politika guneetatik ere emakumeari argi eta garbi eraso egiten dioten eta iraingarri diren adierazpen eta jarrerak nabariak dira. Horiek guztioriek mezu erabat sexistak igortzen dituzte, neurri handi batean indarkeria matxista eta desberdintasuna inplizituki sustatu eta sortzen dutenak.*

*Erakunde publikoek gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexista mota oro errrotik suntsitzeko ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da programa egonkor eta jarraituak garatzea, indarkeriarik gabeko gizartea lortu ahal izateko. Era berean, programa horiek baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitu behar dira.*

*Indarkeria mota guztiak desagerrazteko gure konpromiso aktiboan, gure herriko neska eta mutil gaztekin indarkeria sexista prebenitzeko lanaren aldeko apustu irmoa egiten dugu; izan ere, herri honetan indarkeria matxistak duen eragina arduratzen gaituen errealitatea da.*

*Erakunde publikoek arlo horretan garatu eta sendotu behar ditugu berdintasun politika publikoak, Berdintasun zerbitzuaren gidaritzapean, eta bereziki, Hezkuntza eta Gazteria zerbitzuetatik politika estrategikoekin indarrak batzeko ahaleginean helburu nagusi batekin: esparru guztietatik, emakume gazteen jabekuntza ahalbidetuko duten eta desberdintasun eta indarkeria egoeren aurrean erantzuteko duten gaitasuna sustatuko duten politikak garatzea. Politika horiek, era berean, mutilekin egin beharreko lana eta gogoeta sustatu behar dute, euren protagonismoari eta indarkeria matxistan duten erantzukizunari buruz, erasoa zer den eta zer ez den identifikatzeko dituzten zailtasunei buruz, erasoetan daukaten parte-hartze aktiboari buruz edo eraso baten aurrean ikusle pasibo gisa hartzen duten paperari buruz.*

*Hori guztiori dela-eta, Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartu du:*

- *Bere eskumenen esparruan eta indarrean dagoen legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko eta implementatzeko.*

*Eta, era berean, herritarrak gonbidatzen ditugu konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzera emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, eta baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.*

*Azkenik, azaroaren 25ean, ‘Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna’ dela-eta, izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, bereziki, neska-mutil gazteei.*

*Eskoriatzan, 2014ko azaroaren 20an*

Bozketa eginda, mozioa aho batez onartu dute bertatatutako zinegotziiek.

## **10.- GALDE-ESKEAK.**

### **10.1.- ERREGIMEN FRANKISTAKO SINBOLOAK**

Franko hil zenetik 39 urte betetzen direla gaur gogoratu ondoren, Merino jaunak galdu du ea Udalak dakien Eskoriatzan erregimen frankistako sinbolorik ote dagoen, eta horrela balitz, horiek kentzeko eskatu du.

Alkateak erantzun dio ez dutela ezagutzen horrelako sinbolorik dagoenik, eta eskatu du norbaitek baleki horrelakoren bat dagoenik, jakinarazteko, eta kenduko dutela.

### **10.2.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Iregui andreak jakinarazi du “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna” dela-eta, Udalak Clara Campoamor Elkartarekin batera egiten ari den “Genero indarkeriaren edota sexu erasoen biktima diren emakume eta neska-mutikoei laguntzeko eta koordinatzeko Udal protokoloaren” aurrerapena aurkeztu behar dela. Aurkezpena azaroaren 25ean izango da, 18:00etan, kultur etxearen. Aurkezpenaren ondoren, jendaurrean jarriko da protokoloa, nahi duenak ekarpenak egin ditzan. Amaitzeko, bertaratu guztiak gonbidatu ditu aurkezpenera.

### **10.3.- AUTOBUS ZERBITZUAREN GELTOKIAK**

Merino jaunak esan du jakin duela herrian sinadurak jasotzen ari direla autobus zerbitzuak kale nagusia oinezkoentzat jarri aurretik zituen maiztasun bera izan ditzan goiko geltokian. Esan du orain orduro dela zerbitzua, eta lehen hogei minuturo zela. Kexu da kalea oinezkoentzat jartzerakoan ez zirelako hartu neurriak kale nagusia itxita dagoen orduetan ere autobusek bertatik pasatu ahal izateko, eta horrela, herritar guztiei bermatzea goiko geltokiko zerbitzuak erdiko geltokikoaren maiztasun bera izatea. Esan du asko direla mugikortasun urria duten herritarrak, eta beraz, zaitasun handiak dituztenak erdiko geltokiraino joateko.

Alkateak azaldu dio bere garaian, kalea oinezkoentzat jarri zenean, jorratu zela gaia eta beste aukera batzuk aztertu zirela: 1) autobus gidariak pibotea jaisteko urrutiko kontrolagailua izatea, baina, Aldundiak ez zela egokia esan zuela, zenbait jenderengen nahasmena sor dezakeelako, esate baterako, umeengan. 2) autobusak bira egitea biribilgunean eta saihesbidetik goiko geltokiraino joatea, baina hori egiteko denbora gehiago behar zen eta horrek zerbitzutik zerbitzura gidariekin behar duten atseden denbora betetzea galarazten zuen. Hala ere, esan du, espero dutela urtarrilean edo otsailean egoera aldatzea. Aldundiak berriz esleitu behar duela zerbitzua, eta kontratu berriaren baldintza teknikoetan denbora gehiago aurreikusten dela joan-etorria egiteko, eta horrek ahalbideratuko duela autobusak biribilgunean bira egin ondoren lehengo maiztasunarekin iritsi ahal izatea goiko geltokira.

Iregi andreak ez du uste kontratazio berriarekin dena hobekuntzak izan behar direnik.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 17:00etan. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

#### 1 ERANSKINA

## **KALE ETA AUZOEN IZENAK**

AINGERU GUARDA pasealekua  
ATXORROTX bidea

ANTONTXU bidea

ARANBURUZABALA kalea  
ARBIÑOSTE kalea  
BIDEBARRIETA pasealekua  
DORLETA auzoa  
EDUARDO GOROSARRI plaza  
ELORRETA auzoa  
FERNANDO ESKORIATZA plaza  
GAZTAÑADUI kalea  
GERNIKAKO ARBOLAREN plaza  
HIDALGA kalea  
INTXAURTXUETA auzoa  
JOSE ARANA kalea  
KUATRUENA auzoa  
LETE auzoa  
MAZMELA bidea  
OLAETA plaza  
OLAZAR auzoa  
SAN JUAN kalea  
SAN PEDRO auzoa

SANTA ANA auzoa

SANTA MARINA harratea  
SANTA MARINA plaza  
TORREBASO pasealekua  
TXISTULARIEN harratea

ZALDIBARKO aparkalekua

ZALDIBAR pasealekua

## **ELIZATE ETA AUZOEN IZENAK**

APOTZAGA elizatea  
BOLIBAR elizatea  
GELLAO elizatea  
MARIN elizatea  
MAZMELA elizatea  
MENDIOLA elizatea  
ZARIMUTZ elizatea

ERAÑA auzoa (*Bolibarkoa*)

GAZTAÑADUI auzoa (*Mazmelakoa*)

MARULANDA auzoa (*Zarimutzekoa*)

## **1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

El alcalde da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía Nº 989 y Nº 1011 por las que se aprueban los expedientes de Modificación de Créditos nº 17 y nº 18.

También todos los presentes han tomado cuenta de los informes sobre sostenibilidad financiera emitidos por Intervención con motivo de los expedientes de Modificación de Créditos nº 17, nº 18 y nº 19 del Presupuesto del Ayuntamiento y de los expedientes de Modificación de Créditos Nº 1 y Nº2 de la Fundación Telesko Udal Telebista.

## **2.- RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA DE LA CONVOCATORIA.**

No procede.

## **3.- PRORROGA DEL CONTRATO DE PRESTACION DE SERVICIOS DE ASESORAMIENTO Y GESTIÓN DEPORTIVA.**

Todos los presentes conocen la propuesta que desde la Comisión Informativa de Cultura se hace en relación a la prórroga del contrato para la prestación del servicio de asesoramiento y gestión deportiva.

Concedida la palabra se producen las siguientes intervenciones:

\*El Sr. Ezpeleta hace saber que en la Comisión justificó las razones por las que propuso prorrogar el contrato.

\*El Sr.Merino se queja de que no haya constancia escrita sobre esas razones. A su entender debiera de haber un informe en el que conste qué es lo que se ha hecho hasta ahora y qué es lo que se pretende hacer en un futuro, se haga una valoración de todo ello y se justifique sobre la necesidad y conveniencia de la prórroga del contrato. Insiste en la necesidad de elaborar ese informe antes de adoptar acuerdo alguno.

\* El Sr. Cantero, ratifica lo dicho por el Sr. Merino. Considera que si se trae una propuesta es porque se ha hecho una valoración, que no pone en duda que la haya, pero que debiera estar documentada de alguna manera y no quedar en meras palabras. Insiste en que una justificación mínima debe de constar por escrito para poder votar en un sentido u otro.

\* El Sr. Alcalde admite la queja; propone dejar el asunto sobre la mesa hasta la próxima sesión plenaria para que antes de adoptar acuerdo alguno pueda emitirse por escrito el informe solicitado y pide que la exigencia que se está teniendo con este contrato se tenga con el resto de contratos adjudicados por el ayuntamiento.

Por unanimidad se acuerda dejar sobre la mesa el asunto y que por el concejal responsable del servicio de deportes se emita informe justificativo de la necesidad de la pórroga planteada.

#### **4.- ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA**

Resultando que la empresa propuesta como adjudicataria no ha podido presentar la garantía definitiva por el corto plazo de tiempo transcurrido desde que se le requirió a ello ( 3 días), se acuerda dejar el asunto sobre la mesa.

#### **5.- ACUERDO SOBRE SUGERENCIAS Y APROBACION DEFINITIVA DEL TRABAJO SOBRE TOPONIMIA**

Con fecha 23 de setiembre de 2014 el Pleno del Ayuntamiento adoptó el acuerdo de Aprobar provisionalmente el trabajo sobre toponomía presentado por la Comisión Informativa de Cultura celebrada el 16 de setiembre de 2014 y someter dicho trabajo a información pública por un periodo de 15 días hábiles.

Dentro del plazo de exposición pública se han presentado diversas sugerencias que han sido informadas por el técnico de euskera y dictaminadas por la Comisión Informativa de Euskera.

De conformidad con la propuesta elevada, el Pleno por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Aprobar el trabajo sobre toponomía presentado por la Comisión Informativa de Cultura celebrada el 30 de octubre de 2014.

**Segundo:** Resultando que consecuencia del trabajo aprobado es el cambio de denominación de algunas calles y que es obligación de este Ayuntamiento mantener actualizada la nomenclatura y rotulación de las vías públicas, se acuerda:

1.- Aprobar la lista de denominaciones de las calles, barrios y anteiglesias del término municipal de Eskoriatza que consta como ANEXO 1.

2.- Dar difusión de dicho listado a través de los medios de comunicación local.

3.- Que por los servicios municipales se proceda a cambiar las placas y la señalización vertical que corresponda, con la nueva denominación, y a realizar los cambios oportunos en planos y documentos municipales.

4.-Notificar el presente acuerdo al Instituto Nacional de Estadística, al Servicio Catastral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Registro de la Propiedad y a la Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos.

#### **6.- ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA**

Resultando que la empresa propuesta como adjudicataria no ha podido presentar la garantía definitiva por el corto plazo de tiempo transcurrido desde que se le requirió a ello ( 3 días), se acuerda dejar el asunto sobre la mesa.

#### **7.- MODIFICACION DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 29 de octubre de 2013 adoptó los siguientes acuerdos:

*Primero: Aprobar inicialmente el Plan Estratégico de Subvenciones 2013-2015 del Ayuntamiento de Eskoriatza.*

*Segundo: Someter dicho Plan a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.*

*Tercero: De no producirse sugerencias o reclamaciones, dicho Plan se entenderá definitivamente aprobado sin necesidad de nuevo acuerdo*

No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna en relación a la aprobación inicial, y al amparo de lo previsto en el párrafo final de la letra c) del art. 49 de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, introducido por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en fecha 29 de octubre de 2013 devino en definitivo.

Dicho Plan, en sus artículo 8 y 10, remitiéndose a los Anexos del documento, contempla las ayudas previstas para el ejercicio 2013.

Aprobado el Presupuesto correspondiente al ejercicio 2014, por acuerdo del pleno de fecha 10 de abril de 2014 se adecuaron los ANEXOS del plan al contenido de dicho Presupuesto.

Por acuerdo del Pleno de fecha 28 de octubre de 2014, vía modificación de créditos, se acordó contemplar una nueva subvención nominativa en el Presupuesto 2014, lo que exige modificar el vigente Plan Estratégico de Subvenciones.

Por cuanto antecede, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Hacienda, el voto en contra del Sr. Merino y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Modificar el actual Plan Estratégico de Subvenciones 2013-2015 al objeto de adecuar incluir en el mismo la siguiente subvención:

#### **DEPARTAMENTO QUE CONCEDE LA SUBVENCIÓN: EDUCACIÓN**

#### **B) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA:** Centros escolares del municipio

2014/11/20  
Ez Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno extraordinario

DESTINATARIOS: ARIZMENDI S.COOP.

OBJETO: GASTO CORRIENTE DEL CENTRO

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Directa con convenio

COSTES PREVISIBLES 2014: 8.000 euros

FINANCIACIÓN: Partida 0404.481.422.30.01

#### **8.- EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 19: CREDITOS ADICIONALES**

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº19, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaría-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta.

Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 19 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

Partida presupuestaria	Concepto	Créditos		
		Actuales	Modificaciones	Definitivos
1.0102.601.511.00.15	Urbanización barrio de San Pedro	0,00	300.000,00	300.000,00
<b>TOTAL ...</b>		<b>0,00,-</b>	<b>300.000,00€</b>	<b>300.000,00€</b>

<b>Conceptos de ingresos o partidas de gasto</b>	<b>Concepto de recursos (11)</b>	<b>Mayores ingresos / Bajas de gasto</b>	<b>Parcial de los recursos</b>
0201.870.000.00.01	Remanente de tesorería: créditos adicionales.		300.000,00 €
<b><u>TOTAL INCREMENTOS DE GASTO</u></b>			300.000,00

**Segundo.-** Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

**EXPLICACION DEL VOTO DEL SR. MERINO:** El Sr. Merino dice que no puede votar en contra porque la modificación es para abordar una obras necesarias; pero se queja de cómo se está abordando la urbanización global del barrio San Pedro. Dice que en todas las campañas electorales se ha incluido como una actuación a llevar a cabo, pero que se está abordando demasiado despacio; son 8 años los que han pasado desde que se empezó a hacer algo y que todavía se está en la tercera fase. Se queja de que para otras actuaciones ya se ha sacado el dinero de donde sea y que sin embargo San Pedro se ha ido demorando.

El Alcalde le responde que en el proceso de participación ciudadana que se llevó a cabo hace tres años "San Pedro" quedó en el lugar nº 11, y que se han abordado aquellas actuaciones que en dicho proceso se calificaron como más prioritarias.

#### **9.- MOCION CONJUNTA DE BILDU-ELIZATEAK- EZKER ANITZA-IU SOBRE EL DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES**

La Sra. Iregui lee la parte dispositiva de la Moción cuyo texto íntegro a continuación se transcribe:

##### ***MOCIÓN CONJUNTA CON MOTIVO DEL 25 DE NOVIEMBRE: DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES***

*El 25 de noviembre es el 'Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres'. Con ese motivo, el Ayuntamiento de Eskoriatza muestra su firme repulsa a todas las expresiones de violencia sexista, que son fruto de la desigualdad existente entre mujeres y hombres.*

*Las agresiones y los comportamientos sexistas no son conductas aisladas de algunos individuos, sino que son parte de un sistema patriarcal, vigente en todo el mundo, que hace posible el ejercicio de la violencia contra las mujeres desde la infancia y a lo largo de toda su vida. Son prácticas violentas y machistas de diverso alcance, pero todas atentan –directa o indirectamente– contra la integridad, libertad y capacidad de las mujeres. Desgraciadamente, todavía se detectan en nuestra sociedad muchas actitudes y comportamientos que permiten y legitiman las agresiones a las mujeres.*

*El hecho de que la misma imagen del cuerpo de la mujer como simple objeto que aún siguen proyectando muchos medios de comunicación y de publicidad, e incluso desde espacios sociales y políticos con declaraciones y comportamientos claramente atentatorios y denigrantes hacia la mujer, mandan unos mensajes sexistas de gran calado, que en gran medida promueven y suscitan implícitamente la violencia machista y la desigualdad.*

*Las instituciones públicas debemos poner en el centro de nuestra actividad la erradicación de todo tipo de expresiones de violencia sexista. Para ello, es necesario que desarrollemos programas estables y continuados en el tiempo que nos acerquen a la consecución de una sociedad libre de violencias, dotándolos de recursos económicos y personales.*

*En nuestro compromiso activo de erradicar la violencia en todas sus formas, apostamos firmemente por que se trabaje desde la prevención de la violencia sexista con las y los jóvenes de nuestro municipio, ya que la incidencia de la violencia machista en esta población es una realidad que nos preocupa.*

*Es aquí donde las instituciones públicas tenemos el deber de desarrollar y reforzar las políticas públicas de igualdad, lideradas desde las áreas de Igualdad, procurando sumar fuerzas con políticas estratégicas especialmente desde las áreas de Educación y Juventud, con el objetivo final de desarrollar políticas que, desde todos los ámbitos, faciliten el empoderamiento de las jóvenes y fomenten su capacidad de respuesta ante situaciones de desigualdad y violencia. Dichas políticas deben fomentar, igualmente, un trabajo y reflexión con los chicos sobre su protagonismo y la responsabilidad de ellos en la violencia machista, sus dificultades para identificar qué es una agresión y qué no, su participación activa en las mismas o su papel como espectadores pasivos ante una agresión.*

*Por todo ello, el Ayuntamiento de Eskoriatza se compromete a:*

- *Desarrollar e implementar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia machista.*

*E invita a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad de mujeres y hombres, incluido el rechazo a cualquier manifestación de violencia o discriminación sexista/machista.*

*Finalmente os anima, en especial, a las chicas y chicos jóvenes, a participar activamente en los diferentes actos convocados con motivo del 25 de noviembre, ‘Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres’.*

*Eskoriatza a 20 de Noviembre 2014*

Sometida a votación, la Moción es aprobada por unanimidad de los concejales presentes.

## **10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

### **10.1.- SÍMBOLOS DEL REGIMEN FRANQUISTA**

**2014/11/20**  
**Ez Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno extraordinario

El Sr. Merino, tras recordar que hoy se cumplen 39 años de la muerte de Franco, pregunta si se tiene constancia de la existencia de algún símbolo del régimen franquista en el municipio de Eskoriatza, solicitando que en caso de que lo hubiera se proceda a su retirada.  
El Alcalde le responde que no hay constancia de que quede alguno, y pide que si alguien tiene conocimiento de la existencia de alguno lo haga saber para proceder a su retirada.

#### 10.2.- DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

La Sra. Iregui informa que con motivo del "Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres", se va a presentar el avance del "Protocolo de actuación y coordinación para la atención de mujeres, niñas y niños víctimas de violencia de género y/o agresiones sexuales" del Ayuntamiento de Eskoriatza, que se está elaborando junto con la Asociación Clara Campoamor. Dicha presentación será el próximo 25 de noviembre, a las 18:00 horas, en la casa de Cultura. Tras la presentación se expondrá el avance del Protocolo al público para recoger aportaciones. Acto seguido, invita a todos los presentes a participar en dicho acto.

#### 10.3.- PARADAS EL SERVICIO DE AUTOBUS

El Sr. Merino dice que ha tenido conocimiento de que en el pueblo se están recogiendo firmas para que en la parada de arriba el servicio de autobús tenga la misma frecuencia que cuento la tuvo antes de la peatonalización de la calle central. Señala que ahora el servicio es cada hora y antes era cada veinte minutos. Se queja de que en el momento de la peatonalización no se hayan adoptado medidas que permitan pasar a los autobuses también dentro de las horas en que la calle central está cerrada y así garantizar a todos los vecinos que el servicio de la parada de arriba sea con la misma frecuencia que la del centro. Dice que son muchos los vecinos que tienen una movilidad reducida y por tanto serias dificultades para desplazarse hasta la parada del centro.

El alcalde le explica que en su día, cuando se peatonalizó la calle, ya se abordó el tema y se analizaron otras alternativas: 1) que el conductor del autobús llevase un mando para bajar los pivotes, pero desde la Diputación se desaconsejó porque podía generar confusión en algunos colectivos, como es el caso de los niños. 2) que el autobús diese la vuelta en la rotonda y fuese por la variante hasta la parada de arriba, pero el tiempo de más que exigía ese trayecto impedía cumplir con los tiempos de descanso que entre servicio y servicio se exige tengan los conductores. No obstante, dice, se espera que en enero o febrero la situación cambie. Se va a adjudicar nuevamente el servicio por parte de la Diputación y en las condiciones técnicas del nuevo contrato se contempla más tiempo para hacer el trayecto y ello permitirá que el autobús, tras dar la vuelta en la rotonda, pueda llegar a la parada de arriba con la misma frecuencia que antes.

La Sra. Iregi se muestra contraria a que con la nueva contratación todo van a ser mejoras.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:00 horas minutos. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

## ANEXO 1

### KALE ETA AUZOEN IZENAK

AINGERU GUARDA pasealekua  
ATXORROTX bidea  
  
ANTONTXU bidea  
  
ARANBURUZABALA kalea  
ARBIÑOSTE kalea  
BIDEBARRIETA pasealekua  
DORLETA auzoa  
EDUARDO GOROSARRI plaza  
ELORRETA auzoa  
FERNANDO ESKORIATZA plaza  
GAZTAÑADUI kalea  
GERNIKAKO ARBOLAREN plaza  
HIDALGA kalea  
INTXAURTXUETA auzoa  
JOSE ARANA kalea  
KUATRUENA auzoa  
LETE auzoa  
MAZMELA bidea  
OLAETA plaza  
OLAZAR auzoa  
SAN JUAN kalea  
SAN PEDRO auzoa

SANTA ANA auzoa

SANTA MARINA harratea  
SANTA MARINA plaza  
TORREBASO pasealekua  
TXISTULARIEN harratea

ZALDIBARKO aparkalekua

ZALDIBAR pasealekua

### ELIZATE ETA AUZOEN IZENAK

APOTZAGA elizatea  
BOLIBAR elizatea  
GELLAO elizatea  
MARIN elizatea  
MAZMELA elizatea  
MENDIOLA elizatea  
ZARIMUTZ elizatea

ERAÑA auzoa (*Bolibarkoa*)

GAZTAÑADUI auzoa (*Mazmelakoa*)

MARULANDA auzoa (*Zarimutzekoa*)